



MANGA-ANIMEKO GYMKHANA

1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

- 1.1.** Mangamore 2022ko Manga-animeko gymkhana urriaren 15ean, larunbatean, izango da, 11:00etatik aurrera, Zelaieta Zentroko gela baten.

Gela horretara joateko topagunea sarrerako hall-eko informazio-gunea izango da.

- 1.2.** Parte hartzeko gutxieneko adina 12 urtekoa izango da.

- 1.3.** Gehienez 6 talde egongo dira (2-4 parte-hartzaile taldeko), eta erreserba-zerrenda bat sortuko da.

Larunbatean, 11:00etan, gymkhana hasi aurretik, taldeen egiaztapena egingo da, eta, talde bat bertan ez balego, erreserba-zerrendako hurrengo taldeak ordezkatu du.

- 1.4.** Parte-hartzaile guztiek uneoro bete beharko dituzte antolakuntzaren jarraibideak eta arauak.

2. GYMKHANARI BURUZ

- 2.1.** Lehiaketa honetan 6 taldek parte hartuko dute, puntuaziorik onena lortzeko manga eta animearekin lotutako probak eginez.

- 2.2.** Probak bata bestearen atzetik aurkeztuko dira, eta denbora-muga bat emango da probak osatzeko eta puntuak emaitzaren arabera banatzeko.

3. IZEN-EMATEARI BURUZ

- 3.1.** Izen-ematea aurrez aurre egin ahal izango da Informazio Puntuan (Zelaieta Zentroko harreran), urriaren 14an (ostirala).

Lekurik egonez gero, urriaren 15ean, larunbata, zuzenean eman ahal izango da izena gymkhana egiteko adierazitako gelan, 11:15ak arte.

3.2. Izen-ematea egiteko, datu pertsonal hauek emango dira: taldeko kide bakoitzaren izena, abizenak eta jaioteguna. Halaber, taldearen izena adierazi beharko da.

4. SARIEI BURUZ

4.1. Sariak hurrengoak izango dira:

1. saria: merchandising + dominak

2. saria: merchandising + dominak

4.2. Sariak gymkhana amaitzerakoan banatuko dira.

5. ANTOLAKUNTZARI BURUZ

5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, jardueraren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango du antolakuntzak.

5.2. Antolakuntzak errespetuzkoa eta dibertigarria den partaidetza-testuingurua sustatu nahi du.

5.3. Gymkhanan izena emateko emandako datu pertsonalak konfidentziasunez erabiliko dira, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 03/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Datuak **gymkhana hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.**

5.4. Publizitaterako, gymkhanako parte-hartzaileen irudiak (argazkiak, bideoak, etab.) hainbat komunikabidetan erabili ahal izango dira: telebista-programetan, Interneten, egunkarietan, aldizkarietan, etab. Irudi horiek ez dira inola ere helburu komertzialetarako erabiliko. Ez da ordainsari ekonomikorik emango sustapen-neurri horientatik.

5.5. Gymkhanan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar. Arau bat edo batzuk ez betetzeak gymkhananatik kanporatzea ekar dezake.

HARREMANETARAKO:

Zalantzarik izanez gero, mezu elektronikoa bidal dezakezu lehiaketak@mangamore.net helbidera.

